

UNITATE FRASEOLOGIKOEN ITZULPENA: ALEMANA-EUSKARA. LITERATUR TESTUEN CORPUSEAN OINARRITUTAKO ANALISIA

Tesiaren egilea: Zuriñe Sanz Villar

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ingeles eta Aleman Filologia, Itzulpengintza eta Interpretazioa

Tesi-zuzendaria: Ibon Urbarri Zenekorta

Tesiaren laburpena:

Tesi honen helburu nagusia unitate fraseologikoen (UF) itzulpena aztertzea izan da, alemanetik euskarara egin diren literatur itzulpenetan dauden itzulpen portaerak (Toury, 2012) deskribatu ahal izateko, bai zuzenean (edo alde zuzenean) egin diren itzulpenetan bai zeharka egin direnetan ere. Gure kasuan, zeharkako itzulpena izateak esan nahi du zubi-hizkuntza batean argitaratuta dagoen bertsioan oinarritu dela euskarazko itzulpena; gaztelaniazko itzulpena, kasu gehientsuenetan.

Alemanezko literatur testuak aukeratzeko abiapuntua Aleuska katalogoa izan da. Bertan, alemanetik euskarara itzulitako literatur testuak jasotzen dira, eta gaur-gaurkoz 710 sarreraz osatuta dago katalogoa. Liburu horietatik guztietatik, hainbat irizpidetan oinarrituta, 48 jatorrizko testu hautatu ditugu, 24 haur- eta gazte-literaturakoak eta beste 24 helduen literaturakoak, eta horiekin guztiekin 3,5 milioi hitz inguruko corpus digitalizatu, lerrokatu eta eleaniztuna sortu dugu, AleuskaPhraseo corpusa. Horretarako, TraceAligner izeneko programaz baliatu gara, zeina TRALIMA/ITZULIK ikerketa-taldearen baitan garatu baita eta hainbat testuren aldibereko lerrokatzea ahalbidetzen baitu.

Testu mailako azterketaren baitan, bi UF mota izan ditugu aztergai: somatismoak eta binomioak. Somatismoen osagaietako bat, gutxienez, gorputz-atal bat da, eta gure corpusean «esku», «begi» edo «buru» gisako lemak maiz agertzen direnez, eta maiz agertzen diren hitzek probabilitate handiagoa dutenez unitate fraseologikoetan agertzeko (Milizia eta Spinzi, 2008: 328), «esku»-rekin osatutako somatismoak aztertzea erabaki dugu. Binomioak, bestalde, Piirainen-ek adierazten duen moduan, «are sequences of two or more constituents that belong to the same grammatical category, have some semantic relationship and are joined by a conjunction like *and* or *or*» (2012: 43). Ugariak dira eta askotan erabiltzen dira gure corpuseko euskarazko itzulpenetan (hala nola *behin eta berriz*, *argi eta garbi*, *zur eta lur*, *nola edo hala* eta abar).

Azterketako emaitzetan oinarrituz esan daiteke jatorrizko testuetako aberastasun fraseologikoa mantentzeko ahalegina dagoela euskal itzulpenetan. Are, jatorrizko testuetan UFrik ez egonagatik (edo ezer ez egonagatik) xede-testuetan UFak erabiltzea nahiko ohikoa da. Xede-sistemaren ahultasuna konpentsatzeko ahalegin gisa uler daiteke hori. Bestalde, euskararen egoera diglosikoa dela-eta, zubi-hizkuntzaren interferentzia-kasuak aurkitu ditugu; ez bakarrik itzultzaileek zubi-bertsioa eskura izan duten kasuetan (*testu-interferentzia* gisa sailkatu duguna), baizik eta baita ustez zuzenean itzultitako testuen kasuan ere (*interferentzia kognitiboa* deitu diogu horri).